


Aro Modernoaren bukaera

Frantziako iraultza

XVIII. mendean, Frantziako erregea oso bo-teretsua zen. Jauntxoek ere gainerako herritarrek baino esku-bide gehiago zituzten. Nekazariak, langileak eta hirietako jendea miseria gorrian bizi zen bitartean, erregeak eta bere gortek sekulako festak eta jaiak antolatzen zituen, dirutza handiak gastatuz. 1789ko Uztailaren 14an Parisko hiritarrek Bastillako gartzelari eraso zioten. Geroztik, Frantzia osora hedatu zen iraultza.



Bastillari eraso.

Erregea gilotinatua

Frantziako Luis XVI erregea atxilotu eta gilotinaz hil zuten.



Iparraldea forurik gabe


Frantziako Iraultzak, erregea eta erregetza kendu zuen bezala, jauntxoek eta handikien eskubide bereziak ere desegin zituen.

Denak berdin leinari jarraituz, euskal lege zaharrak, foruak, gainontzeko eskubide bereziak bezalaxe, kendu egin behar zirela erabaki zuten. Aurrerantzean, euskara eta euskal kultura Errepublikaren kontraketat hartuak izango ziren.

Iparraldeko euskaldunak, Biarnoko herritarrekin batera, Pirineo Atlantiarren departamentuan sartu zituzten. Geroztik, Iparraldean ez da euskal legerik, eta Frantziak ez du onartu euskaldunentzat lurralde edo departamentu propioirik.


Errepublika martxan

Iraultzaren ondoren, erregetza baztertu eta errepublika jarri zen. Frantzia osoko hiritarrak eskubidez eta betebeharez berdinak zirela eta aurrerantzean Frantziako hiritarrek aginduko zutela, aldarrikatu zuten. Horrela hasi zen martxan I. Errepublika.



1790.eko otsailaren 8an sortu zen Departamentua. Euskal Herriko Iparraldeak, lurralde bereziaren izaera galdu zuen.

Euskaldunen matxinadak
Espainiako erregeak hartu zituen hainbat erabaki zirela eta, garai hartako euskaldunak haserre bizi azaldu ziren. Zenbait herritan jendea matxinatu egin zen eta gatazka gogorak sortu zituen. Euskal foruen eta erregearen boterearen arteko ezadostasunak zeuden auzi hauen oinarrian.



Bizkaiko Ahdun Nagusia eta beste jauntxo batzuk hil egin zituzten 1718.eko matxinadan.



Gipuzkoako hainbat herritan, Azkoitian eta Azpeitian esate baterako, sekulako matxinadak gertatu ziren 1766. urtean.

Bilbon eta inguruko herrietan izan zen garai honetako azken matxinada, 1804. urtean. Zamakolada deitu zitzaion.



Karlistadak

Espainiako erregearen ondorengotze-eskubidearen eztabaidatik hasi ziren istiluak. Foruak errespetatuko zituen erregearen aldeko eta kontrakoen arteko gerrak sortu ziren. Gudu hauei karlistada deitzen zaie.

Foruen galera

Karlistadak galdu ondoren, euskaldunak zigortu egin zituen Espainiako erregeak. Lege zahar edo foruak betirako baztertu zituen.